

# Euskadiko Berotegi Efektuko Gasen Isurketen Inbentarioa 2024

Emaitzen behin-behineko aurrerapena



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

INDUSTRIA, TRANSIZIO  
ENERGETIKO ETA  
JASANGARRITASUN SAILA

DEPARTAMENTO DE INDUSTRIA,  
TRANSICIÓN ENERGÉTICA Y  
SOSTENIBILIDAD

© Ihobe SA, 2025eko urria

Argitaratzailea: Ihobe, Ingurumen Jarduketarako Sozietate Publikoa.  
Industria, Trantsizio Energetiko eta Jasangarritasun Saila.  
Eusko Jaurlaritza

Urkixo zumarkalea, 36, 6. solairua  
48011 Bilbo  
Tel: 900 15 08 64

[www.ihobe.eus](http://www.ihobe.eus)

Edukia: Dokumentu hau Ihobek egin du, LIMIA & MARTIN SLren laguntzarekin.

Liburu honen edukiak, edizio honetan, honako lizentzia honen pean argitaratzen dira:  
Aitorpena - Ez-komertziala - Creative Commons-en 3.0 Unported lan eratorririk gabe  
(informazio gehiago: [http://creativecommons.org/licenses/by-nc-nd/3.0/deed.es\\_ES](http://creativecommons.org/licenses/by-nc-nd/3.0/deed.es_ES))




## Emaitzak

Berotegi-efektuko gasen emisioen inbentarioaren aurrerapenak<sup>1</sup> zenbatesten du 15,8 milioi tona CO<sub>2</sub> baliokide isuri direla 2024an –behin-behineko datuak direla hartu behar da kontuan–. 1990. urtearekin (20,7 Mt), 2005. urtearekin (25,5 Mt) eta 2023. urtearekin (16,0 Mt) alderatuta:

» Emisioak % 1 murriztu dira 2023. urtearekin alderatuta.

- » Emisioak % 38 murriztu dira 2005. urtearekin alderatuta.
- » Emisioak % 24 murriztu dira 1990. urtearekin alderatuta.


Aditzera eman behar da 2024. urte osoan Barne Produktu Gordinaren (BPG) hazkundera % 2,2koa izan dela, Euskal Estatistika Erakundeak (Eustat) egindako zenbatespenen arabera<sup>2</sup>.



**1. irudia.** Berotegi-efektuko gasen emisioen bilakaeraren indizea (2005 = 100)<sup>3</sup>.

**Iturria:** Bertan landua. 2024rako behin-behineko datuak.

2024. urteari dagozkion behin-behineko datuak eta/edo zenbatetsitakoak abiapuntu hartuta egin dira zenbatespenak. Behin betiko emaitzak 2026an argitaratuko dira. Aurrerapen honetan jasotzen den informazioa, beraz, behin-behinekoa da, eta erabilitako datuen berezko ziurgabetasunari lotuta dago.
- Eustat, 2025eko martxoa.
2024. urteari dagozkion datuak behin-behinekoak dira. 2024ko datuen iturria, EU-27: Crippa, M., Guizzardi, D., Pagani, F., Banja, M., Muntean, M. et al., GHG emissions of all world countries – 2025 Report, Publications Office of the European Union, Luxembourg, 2025, [doi:10.2760/9816914](https://doi.org/10.2760/9816914), JRC143227 Espainiako 2024ko datuen iturria: [2024ko berotegi-efektuko gasen inbentarioaren aurrerapena](#).



**2. irudia.** Emisioen bilakaera, Trantsizio Energetikoaren eta Klima Aldaketaren 1/2024 Legearen eta Planaren helburuekiko.

2024ko emisioen zenbatespenaren arabera, 2021-2024 aldirako Trantsizio Energetikoaren eta Klima Aldaketaren Planean ezarritako helburua bete da, 2024an  $-\% 30$ ; eta Trantsizio Energetikoari eta Klima Aldaketari buruzko otsailaren 8ko 1/2024 Legean ezarritako helburua betetzeko bidean egongo ginateke, 2030ean  $-\% 45$ .

## Sektoreen araberrako bilakaera

Aurrerapen horretan, zenbatetsi da 2023. eta 2024. urteen artean berotegi-efektuko gasen emisioetan 0,16 milioi tona CO<sub>2</sub> baliokide murriztu direla, arrazoi hauengatik:


- » **Sektore energetikoaren<sup>4</sup>** emisioak 2023aren aldean % 5 murriztu direla zenbatetsi da (-0,25 Mt), fintze-industriaren emisioak 2023. urtearen aldean % 1 jaistearen ondorioz. 2005. urtearekin alderatuta % 56 murriztu dira.
- » **Industria-sektorearen emisioak % 9** murriztea espero da (-0,27 Mt), industria-sektoreak gas naturalaren kontsumo txikiagoa egiteagatik.
- » **Garraioaren sektoreak** 2024an 2023an baino balio handiagoak izango lituzke, eta emisioak % 6 inguru handituko lirateke (+0,35 Mt). Sektore horretako emisioak, batez ere, errepide bidezko garraioan erregai fosilak erabiltzearen ondoriozkoak dira.
- » **Bizitegi-sektorearen emisioak % 4 handitu direla** zenbatetsi da (0,02 Mt). Sektore horretako ia emisio guztiak bizitegi-eraikinetan erabilera indibidualerako beroa sortzeko errekontza-instalazioen ondoriozkoak dira.

- » **Zerbitzu-sektorearen emisioak % 1 handitzea** aurreikusten da (+0,004 Mt). Emisio horiek zerbitzugintza-eraikinetan beroa sortzeko errekontza-instalazioen ondoriozkoak dira.
- » **Nekazaritza-sektorearen emisioak % 3 igo dira** 2023ko urtekoen aldean (+0,02 Mt), erregai-kontsumoak zertxobait gora egitearen ondorioz. **Hondakinen sektoreko** emisioak, bestalde, % 5 murriztu dira **2023koen aldean** (-0,03 Mt), baldin eta azken urteetako joerarekin jarraitzen bada.
- » "EU ETS" emisio-eskubideen Europako merkataritzaren araudiak **araututako sektoreen** berotegi-efektuko gasen emisioak (oro har, emisioetan intentsiboak diren industria- eta energia-instalazio handiek eragindakoak) % 0,41 igo dira 2023koen aldean. Azken urte honetan, erregimen horretako industriaren emisioek % 9 behera egin duten arren, energia-instalazioen emisioak (EU ETS emisioen % 66) % 6 handitu ziren.

Azkenik, 2005ean aplikatu zenetik, Euskadin % 48 murriztu dira berotegi-efektuko gasen emisioak araututako sektoreetan<sup>5</sup> (-5,4 Mt).

<sup>4</sup> Energia-sektoreak energiaren eraldaketa eta energia elektriko inportatua barne hartzen ditu.

<sup>5</sup> Ez dira aintzat hartu emisioen salerosketari buruzko 1/2005 Legearen laugarren xedapen gehigarriaren arabera araubide orokorretik kanpo geratu diren instalazioak.



**3. irudia.** Berotegi-efektuko gasen emisioen bilakaeraren indizea, sektoreen arabera (2005=100)

**Iturria:** Bertan landua. 2024rako behin-behineko datuak.

## Metodologia

Aurrerapen honen emaitzak behin-behineko datuak eta/edo zenbatespenak erabiliz lortu dira, betiere aurreko urteetan lortutako balioak kontuan izanik. Zenbatespen horri esker, 2024. urtean espero diren emisioen emaitzen hasierako balorazioa egin daiteke. Hurrengo taulan, informazio-ohar honetan aurkezten diren zenbatespenen emaitzak emateko erabili diren 2024ko datuen iturriak ageri dira.

Sektorea	Iturria
<b>Energia</b>	Sektoreko enpresen EU ETS txostenen emisioen datuak, eta Energiaren Euskal Erakundearen energia-balantzearen datuak. Elektrizitate-trukea: inportatutako energia elektrikoaren aldaketa (REE) eta mix energetikoaren emisio-faktoreak (REE).
<b>Industria</b>	Industria-sektoreko enpresen EU ETS txostenen emisioen datuak, Energiaren Euskal Erakundearen energia-balantzetik ateratako industriaren gas naturalaren kontsumoari buruzko datua eta aurreko urteetako datuekin egindako emisio minoritarioen zenbatespena.
<b>Garraioa</b>	Energiaren Euskal Erakundearen energia-balantzetik ateratako erregaien kontsumoari buruzko datua.
<b>Bizitegia eta zerbitzuak</b>	Zerbitzuen eta bizitegien sektoreetako gas naturalaren kontsumoaren datua (Energiaren Euskal Erakundearen energia-balantzea) eta aurreko urteetako datuekin egindako bi sektoreetako emisio minoritarioen zenbatespena.
<b>Nekazaritza</b>	Behin-behineko datuak, NEIKERek estatistika ofizialetan (EUSTAT, MITECO) eta Energiaren Euskal Erakundearen energia-balantzean oinarrituta egindako kalkuluetatik lortutakoak.
<b>Hondakinak</b>	Aurreko urteetako emisioen datuak abiapuntu izanik egindako emisioen zenbatespena.

**1. taula.** Euskal Autonomia Erkidegoko 2024 emisioak zenbatesteko datuen iturria.

## Eranskina

Sektorea	BEGen emisioak (kt CO <sub>2</sub> bal.)			2005arekiko aldakuntza (%)	2023arekiko aldakuntza (%)	2024ko inbentariorako ekarpena (%)
	2005 <sup>1</sup>	2023 <sup>1</sup>	2024 <sup>2</sup>			
Energia-sektorea <sup>3</sup>	10.530	4.881	4.627	-% 56	-% 5	% 29
Industria	5.449	3.010	2.736	-% 50	-% 9	% 17
Garraioa	5.581	6.093	6.440	% 15	% 6	% 41
Bizitegia eta zerbitzuak	1.393	864	890	-% 36	% 3	% 6
Nekazaritza	1.282	605	623	-% 51	% 3	% 4
Hondakinak	1.227	560	532	-% 57	-% 5	% 3
<b>Guztira</b>	<b>25.463</b>	<b>16.012</b>	<b>15.848</b>	<b>-% 38</b>	<b>-% 1</b>	<b>% 100</b>

**2. taula.** Euskadiko berotegi-efektuko gasen emisioen zenbatespenaren datuak, sektoreen arabera, 2024an.

**6** Euskal Autonomia Erkidegoko 2023ko berotegi-efektuko gasen inbentariotik lortutako datua.

**7** 2024rako zenbatetsitako datuak.

**8** Energia-sektoreak energiaren eraldaketa eta energia elektriko inportatua barne hartzen ditu.



[www.euskadi.eus](http://www.euskadi.eus)  
[www.ihobe.eus](http://www.ihobe.eus)



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

INDUSTRIA, TRANSIZIO  
ENERGETIKO ETA  
JASANGARRITASUN SAILA

DEPARTAMENTO DE INDUSTRIA,  
TRANSICIÓN ENERGÉTICA Y  
SOSTENIBILIDAD